

ESKOLAKO AGENDA 21

**09/10
IKASTURTEA**

ZIZURKIL GAIA:URA



IKASTETXEA:

- **PEDRO MARI OTAÑO IKASTETXEA**
- **SAN MILLAN IKASTETXEA**
- **JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA**



AURKEZPENA 2009-2010 ikasturtean Zizurkilgo umeek eta gazteek Uraren gaia landu dugu Eskolako Agenda 21 programaren barnean. Helburu nagusia ikasleek herrian uraren egoera aztertzea, uraren kudeaketa sistema ezagutzea, uraren inguruko arazoez jabetzea, hau oinarri duten ekosistemak zaintzearen beharra eta aurreztearen zergatik den garrantzitsua jabetzea da.

Udal Batzorde honetara ekarri nahi izan ditugu lanaren emaitzak eta hausnarketaren ondorioz adostutako konpromisoak eta proposamenak.



PARTEHARTZAILEAK

Eskolako Komunitate osoak hartzen du parte: ikasleak protagonista nagusiak izanik, baina baita ere gurasoak, irakasleak eta eskolako beste langileak. Denera 219 ikaslek parte hartu dugu proiektu honetan.



Eskolako Agenda 21en hiru
ardatz lantzen dira:

- eskolako kudeaketaren hobekuntza
- kurrikulumaren azterketa
- komunitatearen partaidetza



Azken atal honetan egin ditugun lanak hurrengoak izan dira:

➤ **Haur Hezkuntzakoek**, panel baten bidez etxean, naturan eta kalean uraren erabilera identifikatu dute. Nola gastatu ur gutxiago ere ikasi dute.

Guk bakarrik ez dugula ura erabiltzen jabetu dira (landareek, animaliak ...).

Ekitate gabezia, haur Afrikar baten eskutitzaren bitartez, toki batzuetan ez dutela urik jabetu dira.

➤ **Lehen Hezkuntzako 1go eta 2. Mailakoek**, ibaia aztertu dute, bere ekosistemaren garrantziaz konturatu dira eta herriko ibaia ezagutu dute. Etxean inkesta baten bitartez, uraren kontsumoaz jabetu dira. Eguneroko jardueretan kontsumitzen den ura aztertu eta neurtu dute. Ingurunea aztertu dute, beste herrialde batekoarekin alderatuz, uraren garrantziaz jabetzeko. Beste herrialdeetako bi umeren testigantza irakurri dute, egunerokotasunean urarekin duten arazoa deskribatzen duena.



➤ **Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. Mailakoek** Ibaia aztertu dute, bere ekosistemaren garrantziaz konturatu dira eta herriko ibaia ezagutu dute. Kaleko kontsumoa identifikatu eta ziklo urbanoa ezagutu dute. (herriko iturriak, estolderia, garbitokiak, ...)

Kontsumo pertsonala aztertu dute, egunero egiten dugun ekintza bakoitzean kontsumitzen dugun ur kopurua jakinik, egun bateko ur kontsumoa kalkulatu dute.

➤ **Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. Mailakoek** etxeko ur ordainagiria aztertu dute. Egunero etxeko bakoitzak batz bestez zenbat ur kontsumitzen duen jakin dute.

Zertarako erabiltzen den ura herrian ezagutu dute eta behar bakoitzean ze ur erabiltzen den ere (edangarria, berrerabilitakoa, ...) Zertan kontsumitzen den ur gehiago, herritar bakoitzeko zenbat ur kontsumitzen duen herriak eta horrelako datu esanguratsuak ezagutu eta aztertu dituzte.



LANAREN ONDORIOAK:

- Batzuetan iturriak eta zisternak ez dira ondo zaintzen.
- Zabor asko botatzen dugula ibaietara.
- Herrikoek urari buruz oso gutxi dakitela (prezioa, lege berria ...)
- Txorrotatik zuzenean edan beharrean botiletatik edaten badugu, asko aurrezten dugu.
- Zaborrak bere tokira bota behar dira, inoiz ez komun zuloetik eta are gutxiago errekarara.
- Zimiterioko iturria altuegi dago eta zipriztinak botatzen ditu.
- Eskola aurreko iturria ondo dago baina azpian hostoak egoten dira eta ura kanporatu egiten da (Pedro Mari Otaño). Udaletxe aurrean dagoen iturria ondo dago, baina ingurua zikina egoten da .



LANAREN ONDORIOAK:

- Paseoko iturria aspaldidanik izorratuta dago.(Zizurkil goia)
- Egunerokotasunean, ur asko erabili eta zikintzen dugu.
- Erreka inguruko landaredia mantentzen ez bada animaliak desagertuko dira.
- Herriko zenbait iturri ez daude egoera onean.
- Eskolako teilatuan kanaloia zulatuta dago(San Millan eta Jesusen Bihotza Ikastola) eta izugarrizko ur pila erortzen da.
- Eskolako iturrien botoiak sakatzerakoan ur gehiegi botatzen du.(San Millan)



LANAREN ONDORIOAK:

- Eskolako komunitan ez dauzkagu botoi bikoitzak eta ur asko alperrik gastatzen da. (San Millan).
- Uste genuena baino askoz gehiago kontsumitzen dugu.
- Ur kontsumoaren datuak aztertzerakoan gauza asko izan behar dira kontuan (Etxe horretan zenbat jende bizi den, etxea edo baserria den, zertarako erabiltzen den ur hori...)
- Ibaian zikinkeria ikusi dugu: ume kotxea, gurpilak...



PROPOSAMENAK:

Gure lanaren ondorioak kontutan izanik, hauek dira egoera hobetzeko egiten dizkizuegun proposamenak:

- Iturriak bakarrik sakatzerakoan ura botatzea.
- Paseoko iturria konpontzea. (Zizurkil goia.)
- Ur kalitatea hobetu.
- Behar denean erreka garbitu.
- Zisternak berritu, gutxiago gastatzeko sistemak jarriz.
- Lege baten bidez, errekek zikintzen duenari zigortu: isuna jarriz edo erreka garbitzeko derrigortuz.
- Errekaren inguruan obrak ez egitea eta landaredia zaindu eta mantentzea.
- Eskolako eta ikastolako kanaloiak konpontzea.



PROPOSAMENAK:

09/10
IKASTURTEA

- Eskolako iturriak sakatzerakoan ur bolumena litro batera gutxitzea eta botoi bikoitzak jartzea.
- Lantegiei ez utzi zikinkeria botatzen.
- Herritarrei informazioa bidali eta kartelak jarri. (Aholkuak)
- Dauden iturrietan presio gutxiago jartzea.
- Zimiterioko iturriaren jarioa gutxitzea.
- Noizbehinka iturri eta zisternak errebisatzea.
- Udaletxe pareko iturriaren jarioa gutxitzea eta beheko zuloa garbi mantendu oinak ez bustitzeko.
- Jendeari zaborrak zakarrontzira botatzeko esan. (Kartelak jarri)
- Frontoiaaren inguruan beste iturri bat ondo legoke.
- Kaleko iturriak eta eskolakoak denbora gutxiago irekita egoteko programatu.



KONPROMISOAK

09/10
IKASTURTEA

Zizurkilgo ikasleok, ondorengo konpromisoak hartzen ditugu:

- Ur gutxiago kontsumitu.
- Dutxatu bainatu beharrean.
- Xaboiak, xanpuak, lixibak eta abar ahal den gutxien erabili.
- Zaborrak, bota behar ez diren tokietara ez bota. (Adibidez komunetik.)
- Birziklatu.
- Udaletxeak jarritako baliabideak modu onean aprobetxatu.
- Liburuxka bat prestatu (eskoletako komunetan arazoren bat badago apuntatzeko).
- Ura ez kutsatzea: ahal den gutxien erabiliz. Alperrik ez gastatuz



KONPROMISOAK

09/10
IKASTURTEA

- Zisterna bonbatik tira eta berehala jaitsi, behar denean bakarrik erabili eta ziurtatu bonba ez dadila trabatuta gelditu.
- Iturriak toperaino ez ireki, itxi behar ez direnean.
- Zisternan urez betetako poltsa edo botila jarri.
- Erreka inguruko landaredia zaindu.
- Edalontziak ekarri, botilak urez bete eta horko ura edan. (Eskolan).
- Jolasterakoan nor bere burua ahal den gutxien zikindu.
- Ontzi garbigailua eta labadora beteta daudenean jarri.
- Nor bait ikusten badugu zaborra ibaira botatzen, hori ez dela egin behar esan.



ESKOLEN KONPROMISOAK

09/10
IKASTURTEA

San Millango Ikastetxean honako konpromisoak hartu ditugu:

- 1- Ura edateko, txorrotatik zuzenean hartu beharrean, gelan 1,5 litroko botila bete eta bertatik edango dugu.
 - 2- Txorroten jariora gutxitzen saiatu ginen, horretarako udaletxeko mantenimenduko langileari deitu genion begiratu eta gero, zaila zela, gero kolpearen arabera aldatzen zela..... esan ondoren, ezin zela egin esan zigun. Horiek hondatu eta berriak jarri arte horiekin moldatu beharko gara . Ondorioz gometxak jarri dizkiegu txorrotei. Litro bat botatzen dutenei gometxa berdea, 1 eta 2 litroren artean botatzen dutenei gometxa horia, eta 2 litrotik gora botatzen dutenei gometxa gorria. Libre egon ezkerreko gometxa berdeko iturriak erabiltzen saiatuko gera.
- Adierazle bezala uraren ordainagiria hartuko dugu kontutan.



ESKOLEN KONPROMISOAK

09/10
IKASTURTEA

Pedro Mari Otaño Ikastetxean honako konpromisoak hartu ditugu:

1. Zisternetan urez betetako poltsak edo botilak jarri.
2. Liburuxka bat prestatu. Bertan, iturri edo zisterna bat egoera txarrean aurkitzen bada, apuntatu eta gero dagokionari jakinarazteko .

Jesusen Bihotza Ikastetxean:

1. Komuneko bonbetan ekonomizadoreak jarri.
2. Kanaloiak eta ituteak konpondu



ESKERRAK

Herriko Agenda 21-ari egiten dizkiogun ekarpen hauek kontuan hartzea eskatzen dizuegu.

Zuen arreta ere eskertu nahi dizuegu eta espero dugu egiten dizkizuegun proposamenei idatziz erantzutea.

Denon artean Zizurkilentzat etorkizun justuagoa eta jasangarriagoa lortuko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroenak;

ZIZURKILGO HAUR ETA GAZTEAK

